

«Ezinbestekoa da emakume argazkilarien lanaz jabetzea»

URA ITURRALDE ARGAZKILARIA

Argazkilaritza ikastaroa eskainiko du Jabetze Eskolan lehen aldiz; beharrezkoa dela dio irudi oro emakumeen ikuspegitik lantzea // 2

Transexualitateari buruzko mahai ingurua egingo dute Ibarra, bihar

Deabruak Kalera asanblada feministak antolatuta, Aitzole Araneta sexologoa eta Bea Sever Naizen elkarteko kidea izango dira gonbidatuak, plazan egingo den ekitaldian // 3

Euskotren Ligaren igoera fasea jokatu du Tolosaldeak asteburuan

Larunbatean Bermeon eta igandean Portugaleten izango diren estropadetan erabakiko da igoera; igandean harrera egingo diete arraunlariei // 7

Garazi Eguzkiza eta Adrian Sanchez, errugbian, «gustura»

Hernani Club Rugby Elkarteko bi talde nagusietan ari dira jokatzen; Eguzkiza, duela lau urte hasi zen, eta Sanchez duela sei urte // 7



ALTZO SAGAR URTEA

Uzta oparoa izan da aurtan, eta baserritarrak sagarrak biltzen ari dira, sagardotegietara eraman eta hurrengo urteko sagardoa egiteko; Felix San Sebastian altzotarrak enpresako lana utzi eta euskal sagarra ekoizten du // 4-5

ENERITZ MAIZ

TOLOSALDEPEDIAKO LANTEGIA

Eguna: irailak 16
Ordua: 17:00-19:00
Lekua: Tolosako Kultur Etxea
Izena eman:



TOLOSALDEPEDIA



EZAGUTZA ELKARREKIN ELKARLANEAN ERAIKITZEN

«Estetika landuko dugu gehien, eta begiekin jolasean ariko gara»

URA ITURRALDE ARGAZKILARIA

Jabetze Eskolan lehen aldiz eskainiko du argazkilaritza ikastaroa; «Pozez gainezka» dago, ezinbestekoa iruditzen baitzaio irudi oro emakumeen ikuspegitik lantzea: «Oraindik urrun gaude berdintasunaren errealtatetik»

Josu Artutxa Dorronsoro

Hemen edo han, lanean edo oporrez gozatzen, baina beti kamera eskuan. Hala ikusi ohi dugu Ura Iturralde (Tolosa, 1979) argazkilaria, eta hala ibiliko da datozen hilabeteetan, Tolosako kultur etxean. Irailaren 28tik aurrera, zortzi saioko (astearte arratsaldeetan) ikastaroa eskainiko du Jabetze Eskolaren barruan.

Zuretzat ez da argazkilaritza tailer bat eskainiko duzun lehen aldia izango, ezta?

Ez. Alde horretatik, ez da zerbait berria izango. Hala ere, Jabetze Eskola bezalako dinamika garrantzitsu batean izango denez, berezia izango da, eta gainera, bada ezberdintasun bat. Nik ez dizkiet kamera erabiltzeko teknikak erakutsiko. Nire laguntza izango dute noski, baina beste ikuspegi bat izango du. Ez da ikastaro trinko bat izango, metodologia teoriko batean oinarritutakoa; beste modu batera antolatuta dut tailerra.

Ez naiz teknikaren zale amorratua. Askotan bost axola dit argazki bat bikain enfokatuta ego-

teak. Orain arte izan ditudan ikasleek arreta handiagoa jarri ohi dute horretan, baina niri gehiago erakartzen naute argazkiaren ideiak edota esanahiak. Horregatik, estetika landuko dugu gehien eta begiekin ariko gara jolasean. Ondorioz, ohiko argazkilaritza tailerretatik aldentzen da nire proposamena.

Zer irakatsiko duzu bertan?

Nik argazkilaritza ikastaroetan parte hartzen nuenean, gizonezko argazkilarien lanak erakusten zizkiguten, baina tailer honetan, emakume argazkilarien lan ugari ezagutuko ditugu. Horien inguruan hitz egingo dugu, eta hainbat galdera egingo dizkiogu gure buruari: Non gaude? Zergatik dira beraiek gehiengoa? Horri erantzunez, *Baffest* argazki lehiaketa edo *No sin fotografías* proiektua ere ezagutaraziko dizkiet parte hartzaileei.

Zein izango da helburu nagusia?

Ezinbestekoa iruditzen zait emakumezko argazkilarien lanen ugaritasunaz jabetzea. Orain arte gidatu ditudan ikastaroetan, ikasleei erakutsi izan diz-

kiedan lanen gehiengoa emakumezkoena da. Hala ere, goi mailako argazkilaritza erabat aldatzen da ehuneko hori. Ez dakigu bidean zer gertatzen den.

Ez du axola zure mailak. Horrela dio tailerrera partaideak erakartzeko mezuak. Hastapen ikastaroa izango da beraz?

Ez du zerikusirik. Parte hartzaile bakoitzak, duen mailarekin egingo ditu argazkiak. Laguntza behar dutenean, banan bana joango naiz zalantzak argitzera. Lehen esan bezala, begia lantzeko interesa dut. Norberaren mailak axola ez duen bezala, argazki kamera motak ere ez du baldintzarik bete beharko. Punta-puntako kamera batek ez du bikaintasuna ziurtatzen; mugikorrarekin ere irudi ederrak lortu daitezke. Ikastaro honen kasuan, argazki kamerarekin ariko gara lanean.

Nahikoak izango al dira zortzi saioak?

Ettxerako lan ugari bidaliko dizkiet ikasleei. [Barreak] Ikastaroa amaitzerako, gainera, erakusketak bat prestatzea da asmoa, eta beraz, lan txukuna egin nahi dut. Zein motatako erakusketa? Festetan emakumeen parte-hartzea islatzen duten irudiekin osatutako erakusketa bat osatzea zen hasierako asmoa, batez ere, inauterietan. Egungo egoerak, ordea, ez du festak ospatzea

bermatzen, eta beraz, baliteke buruan dugun ideia hori aldatu behar izatea. Talde bat osatuko dugu guztion artean, sentimenduak eta iritziak partekatuko ditugu, eta beraz, ez dut zalantzarik ideia berritzaile eta egingarriak sortuko direla ikastaroan zehar.

Zer espero duzu ikasleengandik?

Ikasle askok, argazkiren bat mugituta dagoela ikustean, ezabatu egiten dute. Zergatik? Galdetzen diet nik. Gainera, askotan, nire gustukoenak izaten dira, sormen handikoak izaten direlako. Hortaz, partaideei eskertuko nieke ikuspegia gehiago zabaltzea, argazkiaren esanahia gehiago lantzeko. Batzuetan, teknikarekin obsesionatuta bizi garela iruditzen zait; gainera, argazkilaritza guztiz subjektiboa da. Nor naiz ni argazki bat ona ala txarra den esateko?

Urrian, gainera, Gazte Topagunean ere ariko zara ikastaro bat eskaintzen.

2022KO EGUTEGIA OSATZEKO IRUDIAK AUKERATZEN

Azken urteetan, Tolosanklisk argazki lehiaketak antolatu ohi duen egutegia osatzeko argazki lehiaketan, epaimahaikide izan da Iturralde. Aurtengo edizioan, oraindik ez daki zeregin bera izango duen ala ez. Orain, herritarren txanda da; irailaren 26ra bitarte dute 2022ko hila-beteak ilustratuko dituzten irudiak bidaltzeko aukera. *Tolosa.eus* webguneko Tolosanklisk web-orriaren bitartez egin behar da bidalketa.

Ez du zerikusirik izango. Telefono mugikorrek irudiei ukituak ematen ikasteko tailerra izango da, 16 eta 35 urte bitarteko gazteentzat. Instagram eta bestelako sare sozialetan gazteek erabili ohi dituzten filtro narrasak ekiditea da asmoa; izan ere, badira argazkilari profesionalek erabiltzen dituzten aplikazio edo programak, argazkia oso txukun uzten dutenak, asko hobetzen dutenak.

Zu, ordea, ia maiztasun handiagoarekin ibiltzen zara Tolosatik kanpo, herrian bertan baino. Orain ere nonbait zabil-tza, ezta?

Bai. Iranera joan nahi nuen berriaz, baina ezarritako neurriak direla eta ezinezkoa izan zen bertara bidaiatzea. Albanian izan nintzen uztailan, Komunismo garaiko trenen inguruko erreportaje bat lantzen. Orain, berriaz, Montenegron nago, erreportaje turistiko bat osatzen. Ezinezkoa zait oporretara joan eta ezer egin gabe geratzea.

Orain arteko edizioetan, herritarren artean argazkilaritzarako zale-tasuna ugartu dela aitortu du: «Tolosarren eta argazkilaritzaren artean askotariko harremanekin egin izan dut topo: teknika onekoak, sortzaileak, umore ukitukoak, argazki mota ezberdinak lantzen dituztenak...». *Bizitza* da aurtengo gaia. «Hilabeteroko orrialdea bizitzaren bulkada izatea nahi da, bolar da goibelaren beste alde», esan dute udaletik. «Nire kasuan, originaltasuna saritu izan dut aurreko urteetan. Aurtengo gaia hain zabala izanik, pentsa zenbat argazki eta zein ezberdinak bidali ahalko dituzten», adierazi du Iturraldek.



JOSU ARTUTXA

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

“24. lurre” esparruko “24.1 lurramendi Pasealekua” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia. Behin betiko onarpena.

Tolosako Udalbatzak, 2021eko maiatzaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, hitzez hitz ondoren jasotzen den erabakia hartu zuen: Behin betiko onarpena: “24. lurre” esparruko “24.1 lurramendi Pasealekua” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2021eko irailaren 10ean, 174. alean.

Bestalde, Plan Berezia udaleko web orrian kontsulta daiteke.

Tolosan, 2021eko irailaren 13an
Alkatea
Olatz Peon Ormazabal

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Villabonako Txurru ta-bernak zerbitzari esperientziaduna eta euskalduna behar du, lanaldi osorako. Interesatuak deitu goizez telefono honetara: 634 434 092.

Transexualitatera hurbiltzeko aukera izango da bihar Ibarrran

Gaia lantzeko mahai inguru bat antolatu du Deabruak Kalera asanblada feministak; Aitzole Araneta eta Bea Sever izango dira gonbidatuak

Irati Saizar Artola Ibarrra

Ibarrrako Deabruak Kalera asanblada feministak transexualitatearen bueltako mahai inguru antolatu du biharko. Aitzole Araneta sexologoa, aktibista transfeminista eta berdintasun teknikaria eta Bea Sever Naizen elkarterko bozeramalea gonbidatu dituzte *Hurbilketa transexualitatera* izeneko mahai ingurura. Hizketaldia moderatzen asanbladako kide bat ariko da. Trans legeaz, trans izateaz eta transfeminismoaz ariko dira, besteak beste, 19:00etan, plazako aterpean. Sarrera doan izango da eta momentuan bertan eman behar-ko da izena.

Asanbladako kideek azaldu dutenez, Deabruak Kalera asanblada feminista sortu zenetik sentitzen zuten transexualitatearen gaira hurbiltzeko beharra.



Feminismoaren inguruko hausnarketa bultzatu nahi du asanbladak. ATARIA

«Urte askotan emakume transexualek modu naturalean mugimendu feministan militatu badute ere, azken urte eta hilabeteetan beraiek mugimendu feministan izan beharreko lekuaren inguruko eztabaida soziala izugarri areagotu da, hein handi batean, estatuan trans le-

gearen inguruan sortu den polemika guztiak hauspoturik», esan du Oihana Lopetegik asanbladako kideak. Hori horrela, eztabaidari heldu nahi izan diote, eta pertsona transexualen errealitatea gertutik jarraitzeko errealitate hori lehen pertsonan bizi dutenak gonbidatzea erabaki dute.

Euskal Herrian pertsona transexualek «zapaldurik eta bazterturik» jarraitzen dutela gogorazti du Lopetegik. «Egoera hori aldatzeko ezinbestekoa da lehenik errealitate hori azaleratu eta ahalik eta jende gehienak izatea horren berri». Deabruak Kalera asanbladakoek argi dute: «Guk argi daukagu emakume transexualek mugimendu feministan zein emakumeok parte hartzen dugun beste edozein eremutan ere parte hartzeko eskubidea dutela, eta mahai inguruak ikuspegi hori zabaltzen lagunduko delakoan gaude».

Biharko hitzorduan transexualen eskubideak bermatzeko egin beharreko bidearen inguruko gakoak emango dituzte gonbidatuak. Horrez gain, Espainiako Estatuan onartu den trans legearen inguruko iritziak eta gogoetak partekatuko dituzte.

lako gizartean gizonezkoak alua izan dezaketenak eta emakumezkoak zakila izan dezaketenak, eta gure gorpuzkerak eta genitalak aniztasun horretan mugitzen direla.

Izateaz, bere horretan, beraz.

Azken batean ez da desio bat, ez da hautu bat, errealitate bat da eta ahalik eta hobekien azaldu nahi dugu; guk ezin dugu aldatu, gu beti izan gara garen hori eta jarraituko dugu izaten.

Trans legeaz gain, transfeminismoak ere eman du zeresana azken boladan.

Hemen badago paradigma bat emakume izatea genital konkretu batzuk izatea dela, eta gizonezkoa izatea beste genital konkretu batzuk izatea dela. Gure bizipenak hori zalantzan jartzen du, emakumetasuna eta gizotasunaren bizimodua era zabalago batean planteatzeko ikuspuntu berri bat ezartzen duena. Hori da oraintxe bertan zalantzan jartzen ari garena, eta nik uste urte batzuetara, gauzak ondo egiten badira, begirada atzera bota eta gizarteak irabazi egingo duela, eta egoera horretan diskriminazioak jasan ditugunok ere asko irabaziko dugula.



«Niri galdetzen badidazu ni nor naizen, ez dizut esango trans naizenik»

AITZOLE ARANETA
SEXOLOGOA ETA AKTIBISTA
TRANSFEMINISTA

Asier Imaz / Irati Saizar

Biharko mahai inguruko gonbidatuak bat da Aitzole Araneta (Donostia, 1982). Bere esperientzia pertsonaletik abiatuta transexualitatera gerturatuko ditu bertaratzen direnak.

Zer espero duzu biharkotik?

Nik uste helburua hurbiltasun batetik transexualitate egoeran dauden pertsonen bizitzak nolakoak diren ezagutaraztea dela. Azken urte eta erdian desadostasun asko plazaratu dira estatu mailako lege baten inguruan, eta gure bizitzak distorsionatu egin dira. Helburua da aditzera ematea ez daukagula gainontzekoe-kin horrenbesteko ezberdintasunik eta gure bizitzak besteekin alderatuta antzekoak direla.

Trans legearen inguruan jardungo zarete, besteak beste.

Ekainaren 29an estatuko ministroen kontseiluan egin zen LGTBI eta trans egoera hauek pixka bat eguneratzeko lehen onarpen bat, baina oraindik ibilbide luzea dago behin betiko onarpena emateko. Abagunea badugu gauzak adosteko eta hutsune eta gabeziak osatzen joateko. Gauza teknikoak aparte utzita, nik uste badaudela hainbat gauza legez aldatu behar zirenak, adibidez, gaixotasun mentala daukagula esatearena, legez, gaur egun horrela gaude kontsideratuak; baina gu ez gaude burutik gaizki. Eta gero, haurrei edo migrazio egoeran dauden pertsonak legez babes bat ematea, izan ere, gaur

egun ez daukate legearen babesik. Norbait espainiar estatura iristen denean, bera nor den legalki islatuta ikusteko ez dauka aukerarik. Gure bizitza ere esparru juridikoan ahalik eta hobekien islatuta egotea nahi dugu, inoren eskubideak gutxitu gabe. Azkenean, hemen izan den gatazka handietako bat da ea trans egoeran ez dauden emakumeen eskubideak gutxitu ditzakeen horrelako lege batek, eta nik uste badagoela tartea hori ez gertatzeko.

Trans izatearena ere aipatuko duzuen gai bat izango da.

Ez dakit norbait *trans* esanda baden. Jendeak ulertzeko esan beharko genuke, baina niri galdetzen badidazu ni nor naizen, ez dizut esango trans naizenik. Hori ez da nire ezaugarri bakarra eta eskusiboa. Ni neska bat naiz eta trans hori eufemismo bat bezala erabiltzen dugu, esateko emakume batean jaio nintzela, gizartearen gainontzekoak espero ez zuen genital batzuekin. Nik uste gauzak ondo egiten baditugu hemendik denbora batera trans partikula hori agian ez dugula beharko, gizartean oso txertatuta egongo delako, badaude-

Afganistango egoerari buruzko adierazpena onartu dute

Villabonako Udalak hainbat eskaera egin dizkie Eusko Jaurlaritzari, Europar Batasunari eta Espainiako Gobernuari

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek aho batez onartu dute EAJ alderdiak Afganistanen bizi den egoeraren inguruan aurkeztutako erakunde adierazpena, irailaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean.

Adierazpen horretan, Amasa-Villabonako Udalak hainbat eskaera egiten dizkie Eusko Jaurlaritzari, Europar Batasunari eta Espainiako Gobernuari.

Besteak beste zera eskatu du udalak: Eusko Jaurlaritzak dituen baliabide propioetako plazak gobernuari eskaintzea nazioarteko babes eskatzen duten pertsonak erabili ditzaten eta estatutuak harrera egiteko dituen plaza libreak Afganistango errefuxiatuentzat erabiltzea; Eusko Jaurlaritzak 2018. urtetik bultzatutako Share proposamena Europako agendan txertatzea; babes komunitariorako programak sustatzea, herritarrei errefuxiatuen harreraren eta integrazioaren zuzenean parte hartzeko aukera emana; Euskadin bizi diren 45 afganiarrek harremanetan jarritz familia elkarketak erraztea; eta krisi humanitarioen aurrean migrazio fluxuak humanizatzea eta errefuxiatuentzat igarobide seguruak sortzea, jazarpenaren, gerraren edo giza eskubideen beste edozein urraketa ondo beren herrialdeak utzi behar dituztenen kasuetan.

ABUZZUTIK ESTU

Abuztuaren 15ean hartu zuten Talibanek Kabul, Afganistango presidentea herrialdeetik ateratzearekin batera. Talibanek lurraldea berreskuratu zutenean, UNHCR Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariak ohartarazi zuen Afganistan ez dela jada leku seguru bat bizitzeko, eta herritarren ihesa ez oztopatzeko eskatu zuen. Egoeraren ondorioz, baliteke datozen hilabeteetan milioi erdi lagunak zeharkatzea Afganistango muga, beste herrialde batzuetan babes bilatzeko.

Sagar urtea da aurtengoa, eta sagastiak sagarrez beteta daude; dagoeneko baserritarrek hasi dira sagarrak bildu eta sagardotegietara eramaten, horiek hurrengo urterako sagardoa egin dezaten

Sagarrak, lurra estaliz

Eneritz Maiz Etxarri Altzo

Ez da sagarririk falta sagastietan. Sagar urtea da aurtengoa, eta makina bat sagarrondo daude sagarren pisuari eutsi ezin, eta adarrak puskatuta. Era berean, sagarrak lurra estaliz ikus daitezke sagastietan.

Sagardotarako sagarrek epe laburra izaten dute, eta usteldu aurretik bildu behar izaten dira sagardotegietara eramanez ahal izateko. Euskal sagarrek euskal sagardoa egiten dute, eta azken urteetan bultzada izan du, eta gero eta sagardotegi gehiagok egin du bertako sagarraren aldeko apustua. Bertako sagarra izateko ekoizleak ere behar dira, eta horietako bat da Felix San Sebas-



Egun hauetan lanez gainezka daude, eta sagar guztiak biltzen ari dira sagardotegira eramateko. E. MAIZ

tian altzotarra. Zuaznabar Barrena baserriko zelaietan ditu sagarrondoak landatuta; 40 bat mota ezberdineko euskal sagarrondoak ditu.

«GEHIEGIZKO UZTA»

Aurtengo urtea bikaina, baina «gehiegizko» moduan baloratu du ekoizleak. «Gure helburuetako bat uztak izaten duen desoreka orekatzea da; ez dadila izan urte batean ezer edo oso gutxi, eta hurrengo urtean izugarri». «Izugarria denean lan karga handia da, adarrak hautsi egiten dira, arazoa dago merkatuan. Edozein baserritarrek sagar asko duenean, alde guztietan dago sagarra eta kosta egiten da saltzea».

Fruitel elkartetik uzta desoreka kentzeko lanean ari direla kontatu du: «Asko denean gutxiago eman dezala, eta gutxi denean gehiago eman dezala lortu

«Sagarrak kanpotik erosten ari ziren, eta produktu ona egin genezakeela ikusten nuen»

FELIX SAN SEBASTIAN
BASERRITARRA

Sagar ekoizlea da Felix San Sebastian altzotarra, eta sagardoa egiteko euskal sagarrak ekoizten ditu Altzo Azpin dituen sagastietan



Felix San Sebastianek Altzo Azpin ditu baserria eta lurrak. E. MAIZ

E. Maiz Altzo

Felix San Sebastian Altzo Azpiko Zuaznabar Barrena baserrian jaioa da. Ikasketak baserrira bideratuta egin bazituen ere, urte batzuk bertan lan egin ostean, baserria utzi eta kanpoan aritu zen lanean 22 urtez. Duela lau urte, ordea, berriz ere baserrira itzultzea erabaki zuen sagar ekoizle moduan.

Zergatik sagarrak?

Esne behiak kendu eta beste aktibitate batzuk probatu zituzten nire gurasoek, eta nire apustua

sagarra izan zen terrenoak libre geratu zirenean. Aitari komentatu nion aurrera begira etorkizuna izan zezakeela. Azkenean, sagarrak kanpotik erosten ari ziren, eta produktu ona ateratu genezakeela ikusten nuen.

Noiz eta nolatan erabaki zen nuen hori?

Duela hogeitau urte. Lehendik bageneuzkan sagastiak eta nahiko ekoizpen polita geneukan, garai hartan entzuten zenarekin. Libre genituen sail guztietan sagarra aldatzea erabaki genuen. Hogeitau urteren ondoren, emaitza

orain ari naiz jasotzen. Sagardo sagarraren bolumen inportantea sortzen dugu, eta oso gustura gaude. Horrek aukera eman dit, kantitate batzuetara iritsita, nire bizitzari beste aldaketa bat emateko. Horregatik, lana utzi nuen.

Duela zenbat urte izan zen?

Duela lau urte. Baserritar moduan ari naiz berriro. Fruta ekoizlea naiz, eta sagardo sagarra ekoizten dut, eta oso gustura ari naiz.

Sagarrak biltzeko garaia da, baina urte sasoiaren arabera lan ezberdina izango duzu.

Bai. Lana utzi nuenean, entzun nuen lehen komentarioa horixe izan zen. Ea zer egin behar nuen eta aspertuko nintzela. Sagarrak jaso eta gero zer? Ez da horrela. Justu kontrakoa da. Orain estres handiko egunak dira. Epe motzean 150 bat mila kilo sagar jaso behar ditut gutxi gorabehera. Guztia hilabete baino gutxiagotan jaso beharra dago, heldutasunagatik. Sagardotegiek kalitatea eskatzen dute eta kalitate hori askotan bere puntuan jasotako sagarra bere momentuan prentsatzea da.

Estres momentu hau bukatzen arazko?

Nik beste prozesu bat hasten dut; hurrengo urteko sagarrarentzako prestaketa. Hori sagarra bildu eta segituan hasten da. Sagarrondo horiek oso nekatuta bukatzen dute. Guk Behobia bat egin ostean errekuperatu behar dugun moduan, sagarrondoek ere, eta batez ere aurtengoa, ongariak behar dituzte segituan. Eta kimaketa bat negurako. Neguan lo egiten dute sagarrondoak. Hotz orduak behar dituzte lo egiteko eta atseden hartzen dute,

nahi dugu». Ikerketak egiten ari dira, hiru tokitan, eta besteak beste, Villabona eta Tolosako bi lursailetan. Euskal sagarrak ez direla asko ikertu, eta lan horretan ari dira.

PROIEKTU BERRIAK

Altzoko Handia jaio zeneko baserri inguruko terrenoak alokairuan hartzeko aukera izan zuen duela bi urte, eta bertan beste proiektu bat hasi du. Modu ezberdinean landatu baditu ere, sagardo sagarra ekoizteko sagarrondoak dira. Oraindik oso gazteak dira, eta pare bat urtera espero du fruituak jasotzen hastea. «Sagarrondo horiek txikiagoak dira, azkarrago hasten dira ematen, eta egitura bat dute mahatsaren antzera. Hesi formazioa deitzen den sistema da», azaldu du San Sebastianek. Abantaila duela aipatu du mekanizatuta lan egin daitekeelako: «Traktorekin lan asko aurreratzen duzu, eta eskulan asko kentzen duzu».

Orain, egun hauetan sagarrak biltzen ari diren sagastiak ezberdinak dira. Zuhaitzak handiagoak dira, «epea luzeagoan hasten dira sagarrak ematen, eta bizi luzeagoa dute sagarrondo horiek, beste sistema bat da eta esku lan gehiago eskatzen du».

baina erreserba horiek hartuta sartu behar dute neguan, udaberrian berriro ere loreak agertzeko. Nire lana, nolabait, ongarritu, hau da, zauri txikiak sendatzeko behar dituzten botikak botata bukatzen da. Kimaketa horrek bi-hiru hilabeteko lana emango dit. Kimatu ostean, adar horiek jaso egin behar dira, lurra garbi geratzeko. Gero, konturatzeko neguaren bukaera iristen da. Negua amaitzean, berriz ere, ongarriketari hasi behar dut, esnatzen direnerako janaria izan dezaten zain horiek.

Eta ez da bukatzen lana.

Ondoren loraldiko zaintza dator. Loratzen da, baina lorea jaten duten hainbat intsektu daude, eta horientzako tratamenduak egin behar dira. Ekologikoan ekoizten dut. Belar mozketak ere iristen da, garbi edukitzeko. Eta nahikoa pribilegiatua naiz, ekaina, uztaila eta abuztua lasaia lan egin dezakedan hilabeteak direlako. Gainerakoan, urte guztian dago lana. Bilketan ezin dut, baina gainerakoan aste batean ezin badut lanik egin, ez da ezer pasatzen. Askatasuna ematen dute sagarrondoek, baina lana dago urte guztian; asko gainera.

Zeruari begiratzen diozu?



Epe laburrean esku lan handia eskatzen du sagarrak biltzeak. E. MAIZ



San Sebastianek traktorea ere badu sagarrak biltzeko. E. MAIZ

Egunero. Eragin handia du, eta klima aldaketa nabaritzen ari da. Urtetik urtera ari gara nabaritzen sagarrean. Neguak ez dira hain hotzak, eta lehen aipatu dudan moduan, neguko hotza gure gaueko loaren parekoa da. Guk zortzi ordu lo egin behar dugu errendimendu on baterako, eta sagarrondoek neguan 700 ordu behar dituzte 7 edo 10 graduz azpitik. Azarotik urtarrilera bitarteko izotzak oso onak dira sagarrondoentzat, hotz horrekin lokartu eta atseden hartzen dute.

Azken urteak ez dira hain hotzak izan.

Adibidez, iazko urtean oso uztakaskarra izan zen, aurreko negua oso epela izan zelako. Hotza egin zuen, baina hamabost egunean behin tenperaturaren gorakadak izan ziren, eta hori guri gauean orduero esnatzearen parekoa da. Ez dugu deskantsatzen. Udaberria iristen da, loraldiak oso nahasiak dira, eta ez du behar bezala aletzen. Ez da sagarra itsastean, eta udazkena iristen da, eta sagar oso gutxi edo batere ez.

Zer ematen dizu baserriak?

Askatasun izugarria.

Posible da sagarrondo eta sagarretatik bizitzea?

Bai. Momentu honetan ondo

doa. Ez da soldata izugarria, baina konpentsatzen du. Niri balio dit. Hilero gehiago irabazten nuen lehen, baina hemen gustura nago. Aske naiz. Egia dena da, lursail askorekin ari naizela lanean. Kantitatea sortzen dut, baina orain ari naiz nire urteko soldata ateratzen; kolpetik jotzen dut eta mahai gainean dena jartzen dut oraintxe bertan. Hobea izan zitekeen. Prezioak pixkana goraka doaz, ulertzen ari da nolabait sagarrak prezio duin bat behar duela, eta kostu batzuk eta lan handia dagoela atzetik. Profesional gero eta gehiago dago, eta behar da. Gainera, lehengai hori guk egoki eman behar dugu. Ez da bakarrik sagardoa.

Fruitel elkarteko lehendakaria zara. Zer da Fruitel?

Gipuzkoako frutazaleen elkarte da. Fruta ekoizten duten guztiei babesten dien elkarte da. Ez gaude asko. Mahai sagarra, kiwia, sagardo sagarra, eta gutxi batzuk dira gereziak edo intxaurrak ekoizten dituztenak.

ATARIA IRRATIA

Luze eta zabal egindako elkarrizketa entzuteko aukera izango da Base-rritik saioan, urriaren 4an.

Ataria.eus/irratia/baseritik

Bi irteera geologiko egiteko aukera

Arritzaga ezagutzeko aukera izango da eta Asier Hilario geologo tolosarrak gidatuko ditu: irteerak irailaren 19an eta 26an izango dira

Erredakzioa Amezketan

Aralar euskal geologiaren ikur garrantzitsu bat da eta bertan dagoen Arritzaga bailaran Euskal Autonomi Erkidegoan ikus daitezkeen egitura geologiko ikusgarrienetarikoak aurkitzen dira, hala nola, fosil ugariz hornitutako arroak, Aralar mendilerroaren egitura, meategiak, eta guztien artean ezaugarri bereziak, inguruko bailara glaziar bakarra. Duela 40.000 urte 5 km luzera zituen izotz glaziar batek zizelkatu zuen gaur egun ikusten dugun ibarra.

Guzti hori ezagutzeko aukera eskaini nahi izan du Amezketako Udalak eta horretarako bi irteera geologiko antolatu ditu. Asier Hilario geologo eta aditu

tolosarrak emango ditu azalpen guztiak irailaren 19an eta 26an.

IRTEERA IREKIA, IRAILAREN 19AN

Irailaren 19ko irteera edonorentzat antolatu dute eta irailaren 26ko irteeran berriz, amezketarrek izango dute lehentasuna parte hartzeko.

Bi egunetan 09:00etan aterako dira Minak bideko aparkalekutik, Beratzegazubia baino lehenago dagoena, eta 16:00ak aldera itzuliko dira. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Izena emateko Amezketako Udalera jo behar da, bertaratuta edo 943 653189 telefono zenbakira deituta, eta partaideen muga 20 lagunekoa da irteera bakoitzean.

Ateak itxiko ditu Erretirodunen tabernak larunbatean

ALEGIA // Alegiako plazan dagoen Erretirodunen tabernak ateak itxiko ditu larunbatean. Mari Jose Leundak 20 urtez eduki du taberna zabalik eta erretiroa hartzeko unea iritsi zaio. Tabernaren kudeaketa lehiaketa publikora ateratu zuten, baina oraindik ez dute zehaztu berriz noiz irekiko duten.

5

POSITIBO BERRI

Osasun Sailak emandako datuen arabera 6.510 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik, 195 (%3) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 70 atzeman zituzten, tartean, 5 Tolosaldean: Ibarran 2 eta Anoetan, Asteasun eta Tolosan bana. 5.000 biztanle baino gehiago zituzten Tolosaldeko herrien kasuan, Amasa-Villabona (50) kolore berdera pasa da, eta Tolosa (87) kolore horiz dago. Osasun eremuei begiratu, guztiak ere horiz markatuta ageri dira.

Mapa berria, herriguneko eta auzoetako izenekin

BALIARRAIN // Baliarraingo Udalak herri sarreran mapa berria jarria du. Herrigunean eta auzoetan dauden etxe eta baserrien izenak zerrendatu dituzte, bakoitza non den kokatu ahal izateko. Kanpotik doazentzat eta herrian bertan bizi direnentzat lagungarri izatea du helburu.

Nekazal makinariaren azterketa teknikoa

TOLOSALDEA // Nekazal makinariaren azterketa teknikoa (IAT) eskualdean bertan pasatzeko aukera eskaintzen du Tolomendik. Urrian eta azaroan ikuskarpen unitate mugikorra egongo da eskualdeko hainbat herritan. Interesatuak Irungo IAT egoitzara deitu behar dute (943 62 63 00) hitzordua hartzeko. Urrian Tolosan, Asteasun, Amezketan, Alegian, Anoetan, Villabonan, Lizartzan eta Bidania-Goiatzen egongo dira, eta azaroan Berastegin.

Ibarrako azoka berreskuratuko dute iazko etenaren ostean

Ibarrako Udalak eta Hauspoa elkarteak antolatu dute azoka eta Emeterio Arrese parkean eta Erraketistak frontoian 30 postu baino gehiago izango dira igandean

Erredakzioa Ibarra

Bueltan da Ibarrako Azoka. Udalak eta Hauspoa elkarteak ekimena berreskuratzea erabaki dute, iazko etenaldia eta gero. Honenbestez, igandean, Emeterio Arrese parkean eta Erraketistak frontoian 10:00etatik 14:00etara gauzatuko da XXI. Ibarrako Azoka. 30 postu inguru jarriko dira bertan eta besteak beste, elikagaiak eta artisautza produktuak izango dira, beti bezala, Ibarrako piperra ardatz hartuta.

Hauspoa elkarteak ordezkari Ixiar Arratibelek gaur egungo osasun egoerara egokitutako azoka egiteko antolatzaileek egin duten ahalegina aipatu du. Postuen kopurua erdira murriztu behar izan dute: «Dena den, betiko ildoari jarraituko diogu, lehentasuna herriko postuek dute eta gero eskualdekoek. Faltan dauden produktuak osatzeko kanpoko base-ritarrei eta artisauari egiten diegu gonbidapena». Bitxiak, serigrafia lanak, altzari margotuak eta beselako esku lanak izango dira sal-



2019an azkenekoz Ibarra egin zen azokan jasotako irudia. IRATI URDALLETA

gai eta jatekoen artean barazkiak, txerriak eta garagardoa izango dira, besteren artean. «Ahalegina egin dugu xumeagoa bada ere azoka anitza izan dadin», esan du Arratibelek. «Esan gabe doa aurtent kanpoan geratu direnek aurrerago parte hartzeko aukera

prest eduki dezaten elkarteak boluntarioek egiten duten lana eskertu nahi izan du Irrintzi elkarteak arduradunak. Ohitura den bezala, aurtent ere, isats gisatu lehiaketa egingo dute azokarekin batera. Aiztondo bailarako sei elkarteak parte hartuko dute. «Dagoeneko isatsa banatu zaie elkartei eta bakoitzak bere aldetik prestatuko du. Azken ukitua emango diote larunbatean Errebote plazan bertan». Besteak beste, Jabi Rivero sukaldariak egingo ditu epaima-haikide lanak eta etzi 13:30 alde-
ra banatuko dituzte sariak.

izango dutela, behin martxa hartuta hurrengo urteetan lehengora bueltatzea baita gure asmoa».

Ibarra plaza «ona» dela uste dute antolatzaileek: «Guk ekoizpen ekologikoaren eta jasangarriaren alde egiten dugu. Gure helburua produktuak ekoizleen eskuetatik zuzenean kontsumitzailearengana helaraztea da».

Aurtent, COVID-19a dela eta, segurtasun-protokoloa jarraituz, azoka gunean ezingo dira elikagaiak dastatu, musukoa jarrita eraman beharko da uneoro, tarteak zaindu eta pilaketak saihestu beharko dira. Igandean boluntario talde bat ariko da gerturatzen direnei argibideak ematen. Lehiaketa gastronomikorik egongo ez denez, Emeterio Arrese plazan eta Erraketistak frontoian jarriko dituzte postuak.

Azoka berezian postua jartzeko izena eman beharko da

ALEGIA // Udalak hilaren 26an Artisau eta Barazkien Azoka Berezia egingo du, eta Alegiako edo herriarekin lotura duten ekoizleek eman dezakete izena postua jartzeko. Apuntatzeko azken eguna, astelehena, hilak 20, da. 943 65 46 98 telefono zenbakira deituta edo kultura@alegia.eus helbide elektronikora idatzita egin beharko da izen ematea. Azokaren kokapena datozen egunetan zehaztuko dute.

Elikagai bankuko sortak prestatzeko boluntario bila

ZIZURKIL // Elikagai bankuko sorta prestateta egingo da datorren ostiralean, irailak 17an, 09:30etik aurrera. Herrian behar hau dutenengan iristea da helburua eta hiru hilabeteko egiten dute banaketa. Horrelakotan sortak prestatzen boluntarioek egiten duten lana ezinbestekoa dela jakinarazi du udalak. Boluntarioek Aiztondo mankomunitatean eman beharko dute izena, 943 69 39 30 zenbakian.

Irrintzi elkarteak azoka berezia egingo du larunbatean

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Irrintzi elkarteak XXVI. Azoka Berezia egingo du etzi Errebote plazan. 28 artisautza eta elikagai postu izango dira 09:30etik 14:00ak arte eta segurtasun neurriak betetzeko plaza hesituko dute eta gezien bidez noranzkoa adierazi. Orain arte Zubimusu ikastola-

ren Txermingo egoitzaren azpialdean antolatu izan dute azoka, baina osasun egoeratik ekimena Errebote plazara lekualdatu zuten iaz. Gaur egungo egoera ikusita, tokiari eustea erabaki dute Irrintzi elkarteak kideek. Ander Etxeberria Irrintzik idazkariak adierazi duenez, taberna ere jarriko dute plazan: «Pintxoak eta edariak emango ditugu,

baina hori bai, bihar Labik kontrarik esaten ez badu, eserita kontsumitu beharko da».

Euskal Herri osotik etorritako elikagai eta artisautza postuak bisitatu eta bertan erosketak egiteko aukera izango da azoka berezian. «Aragoitik eta Errioxatik etorritakoak ere izango dira», adierazi du Etxeberriak. Bide batez, ekoizle eta artisauak dena

prest eduki dezaten elkarteak boluntarioek egiten duten lana eskertu nahi izan du Irrintzi elkarteak arduradunak.

Ohitura den bezala, aurtent ere, isats gisatu lehiaketa egingo dute azokarekin batera. Aiztondo bailarako sei elkarteak parte hartuko dute. «Dagoeneko isatsa banatu zaie elkartei eta bakoitzak bere aldetik prestatuko du. Azken ukitua emango diote larunbatean Errebote plazan bertan». Besteak beste, Jabi Rivero sukaldariak egingo ditu epaima-haikide lanak eta etzi 13:30 alde-
ra banatuko dituzte sariak.

Urriaren 9an egingo dute saioa buruhandi eta erraldoiek

TOLOSA // Igandean, irailaren 18an, Tolosako Buruhandi eta Erraldoiek emanaldia eskainiko dute zezen plazan. Ikuskizunak izan duen harrera ona eta herri-tarren erantzuna ikusita, buruhandi eta erraldoien konpartsekin elkarlanean udalak emanaldi berria egitea erabaki du: urriaren 9an 18:00etan zezen plazan. Aurrerago jakinaraziko dute noiz eta non eskuratu ahal izango diren sarrerak.

Hilberriak eta urteurrenak



Pako Bidasoro Blasco

Familiak benetan eskertzen dizuegu modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zareten guztioi. Eta bereziki Andoaingo "Gora Kale Txiki Txaranga"ri zuen maitasun eta babexa emateagatik.

Betirako maite zaitugu aita

IBARRA, 2021eko irailaren 16a

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€	• Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 €	• Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 €	• Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Tolosaldeak urteko erronka du asteburuan

I. Garcia Landa

ETE Liga irabazi ondoren eta Kontxako Banderan laugarren postua lortu eta gero, Tolosaldea traineruak denboraldiko hitzordu garrantzitsuena du asteburuan, Euskotren Ligaren igoera fasea jokatu baita. Bi estropadatan erabakiko da: larunbatean Bermeon eta igandean Portugaleten.

Lau traineru ariko dira jokoan dagoen postu bakarra lortzeko lehian. Batetik, Hondarribia, Euskotren Ligan laugarren postuan geratu dena. Bestetik, Tolosaldea eta Deusto, ETE Ligako lehen bi sailkatuak izan zirenak. Azkenik, Cabo da Cruz, Galizia-ko ligan lehen bi postuetan geratu zena. Beste ontzi galiziarrak, Chapelak, uko egin dio parte hartzeari.

Eusko Label Ligako azken bi estropadekin batera jokatu da igoera faseko saioak. Bermeokoa, larunbatean, itsasoan izango da eta 17:40ean hasiko da.

Portugaletekoa, igandean, ibaian izango da eta 11:30ean hasiko da. Erlojuaren aurkako lehia izango da bi jardunaldietan, eta bakoitzean denbora onena lortzen duenak lau puntu lortuko ditu, bigarrenak hiru puntu, hirugarrenak bi puntu eta azkenak puntu bakarra. Bi jardunaldietan puntu gehien lortzen dituen trainerua izango da hurrengo denboraldian Euskotren Ligan egongo dena. Puntuetara berdinketa badago, horien artean bi jardunaldietan denbora onena egin duena izango da irabazlea.

HARRERA ARRAUNLARI EI

Asteburuan igoera lortu ala ez, Tolosaldea traineruko kideei harrera egingo diote eskualdeko udaletako ordezkariak. Tolosako udaletxean izango da, igandean 18:30ean. Besteak beste, ekitaldia baliatuko dute arraunlariak azken bi urteetan lortutako bandera guztiak erakusteko udaletxeko balkoian.

Aldaketa handiko urtea



Aulkitik

Ainhoa Garikano

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Denboraldi berriarekin batera, gu ere bagatoz ATARIA-ko txoko honetan gure asteburuko esperientziak plazaratzera.

Aurtengoa denboraldi berezia da, aldaketa handikoa. Entrenatzaile berriak eta horrekin batera futboleko jokatzeko ikuspuntu desberdin bat. Jokalariei dago kienez ere, aldaketa nabarmena izan da aurtan, taldea kanpotik

etorritako hainbat jokalarirekin osatu baitugu.

Ligari ez diogu hasiera ona eman, egindako akatsak garesti atera dira eta ondorioz azken postuetan gaude garaipenik lortu gabe. Gure identitatea eta jokoa pixkana eraikiz, akatsetatik ikasiz, taldeko giro eta harremanak estutuz, gure bertsiorik onena zein den erakutsiko dugu eta pixkana sentsazio eta emaitza positiboak lortzen joan.

Aurtengo denboraldiaren beste berezitasun bat talde eta leku berriak ezagutzea da. Lehenengo aldiz Tolosako neskak Santanderrera bidaiatzeko aukera izango dugu. Bidaia luze honen truke 3 puntuak etxera ekartzea merezi dugu ezta? Guk gutxienez gure esku dagoen guztia egingo dugula argi daukat.

Bukatzeko, eskerrak eman ATARIA-ri beste urtebetez Tolosako emakumeen futbol taldeari ikusgarritasuna emateagatik. Aupa Tolosa trakatra!

Bi billabonatar errugbian murgilduta

Baloi obalatuaren kirolak erakarrita, Garazi Eguzkiza eta Adrian Sanchez Hernani Club Rugby Elkarteko bi talde nagusietan daude

Imanol Garcia Landa

Amasa-Villabona

Garazi Eguzkiza eta Adrian Sanchez billabonatarrek errugbian jokatzeko dute, eta biak Hernani Club Rugby Elkartean ari dira. Eguzkiza orain lau bat urte hasi zen errugbian: «Nire aitak Hernaniko Azeri Zaharrekin entrenatu zuen eta horrez gain inklusiboko taldean lagundu zuen. Inklusiboen partida batean jendea behar zuten laguntzeko, ni joan nintzen eta asko gustatu zitzaidan. 14 urtez azpikoetan izena eman nuen eta geroztik klubean jarraitzen dut».

Sanchez orain dela sei urte hasi zen errugbian. Aurretik saskibaloian aritzen zen: «Seniorretara pasatzerako garaian taldearekin arazoak izan genituen eta utzi egin nuen». Hilabete batzuk bere kasa entrenatzen aritu ondoren, «nire amaren lagun batek esan zidan Hernanin giro ona zegoela errugbian ibiltzeko. Bertara joan nintzen probatzera eta hor jarraitzen dut, pozik».

Tolosaldean errugbi talderik ez egoteak ez duela zerikusirik eskualdean dagoen zaletasunarekin dio Sanchezek: «Gipuzkoako toki askotan daude taldeak, eta ez da inoiz egon afizio handirik. Pentsatzen dut Tolosaldean inoiz ez dela izan ekimenik talde bat sortzeko; azken finean, zerotik talde bat sortzea zaila da». Eguzkizak bat egiten du: «Ez dut uste afizioarena arazoa denik. Nire lagunei gustatzen zaie ere errugbia ikustea, baina uste dut jende askok kirol honetan haste-ko beldurra-edo duela. Iruditzen zaie arriskutsuegia dela kirola, eta ez da horrela».

Kirol arriskutsua izatearen fama horren aurrean, Sanchezek dio errugbia kirol «gogorra» dela; «baina, fisikoki prestatuta bazaude eta intentzioa jartzen badiozu, ez dut uste kirol arriskutsua denik. Kontuz ibili behar da eta lesioak izaten dira, baina fisikoki ondo bazaude, pixkana hasita jokalaria ona izan zaitezke, arriskurik gabe». Bide horretatik, jokatzeko den postuari ere garrantzia ematen dio Eguzkizak:



Garazi Eguzkiza eta Adrian Sanchez. HERNANI CREPRENTSA

«Teknikak bere garrantzia du. Defentsatik nola ihes egin baldin badakizu, kolperik gabe bukatu ahal duzu partida».

Errugbiak bere konplexutasuna du. «Hasi nintzenean asko harritu nintzen, pentsatzen nuela kirol askoz sinpleagoa izango zela, batez ere telebistan ikusita-koagatik», esan du Sanchezek. «Baina arau asko daude, eta nahiko konplexua da. Fase asko daude jokoan, eta hasieran pixka bat kostatzen da ulertzea».

Emakumezkoen lehen taldean jokatzeko du Eguzkizak. Egun Euskal Ligan daude, estatuko hirugarren maila dena. «Hamabira jokatu genuen aurreko denboraldian, eta aurtan hamabostera jokatu nahi dugu», azaldu du «Horregatik errugbian probatu nahi duten neska guztiak taldera etortzera animatzen ditut».

Sanchez gizezkoen lehen taldean dago, eta Ohorezko B mailan jokatzeko dute, hau da, bigarren mailan. Denboraldi honetako helburua iazkoaren berbera dela esan du: lehen mailara igotzea. «Iaz finalerdietan geratu ginen, eta aurtan uste dut aukera gehiago dugula igotzeko».

BABESLE TOLOSARRAK

Hernani Club Rugby Elkartek 2021-2022 denboraldia hasteko prestaketa lanei ekin dion hone-

tan, denboraldirako babesle nagusia aurkeztu du. Tolosan kokatuta dagoen CMO Valves enpresa entzutetsua izango da hernaniarren babesle nagusi berria. Gainera, Ford markak Gipuzkoan duen kontzesionario ofizialak, Garaje Tolosak, ere taldea babestuko du.

Joxe Gurutz Elozegi, Hernani Club Rugby Elkarteko lehendakaria oso eskertuta agertu da CMO Valves eta Garaje Tolosa enpresek taldea babestu eta «harrobi zein inklusibitatean oinarritutako proiektua» hazten laguntzeagatik. Iker Diez CMO Valves eta Garaje Tolosako jabeak, berriz, «balore handiko talde bat babestea oso pozgarria» dela adierazi du.

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

**OHOREZKO JUBENIL MAILA**
Larunbata 18, 17:45ean

**BILLABONA F.K.E.**
A. MUNDARRO F.K.E.

**1. JUBENIL MAILA**
Igandea 18, 15:30ean

**BILLABONA F.K.E.**
DANENA K.E.

 Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO IRAILAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 16

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Furgobaratza Anoetako baratze parkean, herritar guztientzat, 18:00etan.
Tolosa. Ohe elastikoak daude jarrita Trianguloa plazan, 10:00etatik 20:00etara.

Zinema

Amasa-Villabona. *Crock of gold: bebiendo con Shane MacGowan* dokumentala, Gurean, 19:30ean.
Tolosa. *Mandibulas* filma Leidor aretoan, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Iosu Lasa artista legazpiarraren marrazki erakusketa 3 tabernan.
Tolosa. Azken Muga erakusketa, Zaratetxean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearekin, prentzari begirada, eskualdeko albisteak, kirol tertulia, kolaboratzaileen tartea...

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. C. Bronte. Korreo, 20, 34. 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Kaxkarretik hasiko dugu eguna, baina hobetzeraz egingo du. Goizean hodei asko agertuko dira, tarteka zaparradaren bat edo beste utziko dute eta gogotik botatzea ere ez da baztertzeko joera hartuko du eta azken orduetan ostarre txikiren bat edo beste agertuko da. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak jaitsi egingo dira, 21-22 graduan joz goia.



Bihar. Goizean eguraldi polita izango dugu, non orokorrean zeruan urdina eta eguraldi eguzkitsua nagusituko den. Arratsaldean, ordea, pixkana hodei geruza trinkotu egingo da, zerua es-talirik geratuko da eta azken orduetan euri zaparradaren bat edo beste izango da. Haizeak goizean hegotik joko du, eta arratsaldean aldiz ipar-mendebaldetik. Tenperatura igo egingo da, maximoak 24-25 graduan kokatuz.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Igandera arteko epea dago 'Ataria'-ren Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeko; bi gaueko egonaldia, otordu bat edota saski bat irabaziko dute irabazle suertatzen direnek

Parte hartzeko azken aukera



'Bare' izeneko txuri-beltzeko argazkia aukeratu du herritar batek lehiaketan parte hartzeko.

Erredakzioa

Aurten ere, azken urte-etako erantzun ona ikusita, ATARIAK Udako Argazki Lehiaketa jarri du martxan. Uztailean zabaldu zen parte hartzeko aukera, eta herritar ugariaren udako argazkiak iritsi dira ordu-tik. Bada, igandea izango da uda honetan ateratako argazkiekin lehiaketan parte hartzeko azken eguna.

Parte hartzea oso erraza da. *Ataria.eus*-en Argazki lehiaketa-

ren atalean sartu, eta bertako hutsuneak betetzeko eta bidali nahi den argazkia hautatuz egin behar da. Webgunearen atal horretan geratzen dira ikusgai partaide guztien argazkiak, eta behin parte hartzeko epea bukatuta, bozkatzekoa zabalduko da. Irailaren 21etik urriaren 6ra bitarte bozkatu ahaliko da webgunearen bitartez, eta argazki irabazleak eta hauen egileak urriaren 8an jakinaraziko dira *Ataria* astekarian, *Ataria Irratian* eta *Ataria.eus* webgunean.

Ohi bezala sari potoloak esku-

ratzeko aukera izango da Udako Argazki Lehiaketan parte hartuz gero. Hain justu, hiru sarietako bat lortu ahaliko da. Batetik, epaimahaiaren saria: Opari Bonu Orlegia, bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia, logela eta gosariarekin, Nekatur Nekazalturismo elkartearen eskutik. Bestetik, *Ataria.eus*-eko erabiltzaileen saria: bi pertsonarentzako otordua Bidania-Goiazko Bailara jatetxean. Eta, azkenik, Atariki-deen saria: parte-hartzen duten Atarikideen artean, Lixoneren bi saski zozkatuko dira.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

Kimetz

MODA EGITEKO GURE MODUA

Denda berriaren irekiera, bihar. Korreo Kalea 35, Tolosa

